Name/names of poster presenters: Igone Zabala, Izaskun Aldezabal, María Jesús Aranzabe, Jose Maria Arriola, Itziar Gonzalez-Dios, Mikel Lersundi

Institution/organization: University of the Basque Country (UPV/EH)
Department of Basque Language and Communication
Ixa Research group

E-mail address(es): igone.zabala@ehu.eus; izaskun.aldezabal@ehu.eus; maxux.aranzabe@ehu.eus; josemaria.arriola@ehu.eus; itziar.gonzalezd@ehu.eus mikel.lersundi@ehu.eus

Title of the poster: Corpus-driven Terminology Work for Describing Basque Academic Terminology: the *Weaving Terminology Networks* programme (TSE programme)

Size of the poster: A0

Abstract:

Languages undergoing normalization processes such as Basque require planned language policies including terminology planning. Nevertheless, we are also conscious that when language is used normally in specialized communication, natural development and self-regulation inside specialized discourse communities also contribute to the development and normalization of terminology. Basque is used intensively as an instruction language in university courses in all kinds of disciplines, as well as in doctoral theses, master's theses and a large number of end-of-degree works. Consequently, the terminology used in academic settings should be described and analysed, since disregarding the expert's real usage in terminology planning may hinder the natural development of academic registers of Basque. Monitoring texts and terminology used in academic communication are precisely the goals of the programme *Terminologia Sareak Ehunduz* (TSE) 'Weaving Terminology Networks', which started in 2008 at the University of the Basque Country (UPV/EHU). We call the methodology used in the TSE programme *active description* because the authors of the texts describe the terminology they use in their own texts with the help and guidance of linguists involved in the programme. The work unit in TSE is a communicative unit (mainly a teaching subject). Terminology work is corpus-driven, and uses a 'bottom-up' approach to concepts. In the poster we will present in detail the aims of the TSE programme, as well as the methodology used and relevant results obtained so far, using data samples and diagrams.

Laburpena:

Normalizazio bidean dauden hizkuntzak, horien artean euskarak, terminologia-plangintza barne hartzen duten planifikatutako hizkuntza-politikak behar dituzte. Hala ere, kontzienteak gara hizkuntza bat komunikazio espezializatuan normaltasunez erabiltzen denean diskurtso-komunitate espezializatuen barruan gertatzen diren garapen naturalak eta autorregulazioak ere eragiten diotela terminologiaren garapen eta normalizazioari. Euskara erruz erabiltzen da egun unibertsitatean instrukzio-hizkuntza bezala, bai eta zenbait doktoretza-tesitan, zenbait master bukaerako lanetan eta gradu bukaerako lan ugaritan. Ondorioz, unibertsitateko esparruetan erabiltzen den

terminologia deskribatu eta aztertu behar da, zeren terminologia-plangintzak adituen erabilera errealei ezikusia eginez gero, baliteke arriskuan jartzea euskararen erregistro akademikoen garapen naturala. Komunikazio akademikoan erabiltzen diren testuak eta terminologia monitorizatzea da, hain zuzen ere, 2008. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) abian jarri zen Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programaren helburua. TSE programan erabiltzen dugun metodologiari *deskripzio aktibo* esaten diogu, zeren eta testuen egileak berak baitira, programan parte hartzen duten hizkuntzalariekin batera, beraien testuetan erabiltzen duten terminologia deskribatzen dutenak. TSE programaren lan-unitatea komunikazio-unitatea da (maiz irakasgai bat). Terminologia-lana corpusek gidatutakoa da, eta behetik gorako ibilbidea erabiltzen du kontzeptuetara heltzeko. Posterrak xehetasun handiagoaz aurkeztuko ditu TSE programaren helburuak, bai eta erabilitako metodologia eta lortutako zenbait emaitza ere, beti ere adibideen laginak eta diagramak erabiliz.